



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2010/2011 Denboraldia

21ZK.DUN ZIRKULARRA

EUSKADIKO FEDERAKUNDEAREN XVI. GAZTE KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin batean, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo araei jarraiki :

1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Izena eman duten hogeita hiru talde hartuko dute parte, hurrengo eran bananduta

A) OHORE MAILA

Antiguo'ko K.E. "A", Barakaldo C.F., Danok Bat Club "A", Deportivo Alavés "A", Eibar S.D. "A", Leioa S.D. y Santutxu F.C. "A".

B) NAZIONAL MAILA

Arenas Club, Aretxabaleta U.D., Ariznabarra C.D., Athletic Club "B", Gernika C.S.D., Real Unión Club, Retuerto S.S.D., Romo F.C. eta Zarautz K.E.

C) EUSKAL LIGA

Abetxuko A.D.C., Anaitasuna F.T., Aurrera Vitoria C.D., Laudio C.D., Lengokoak S.D., Peña Ath. Santurtzi C.D., y Zumaiako F.T.

2.- LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da: aurrekoa eta finala.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

1. Aurretiazko Fasea

Parte hartuko dute, partidu bikoitzaren arabera, maiatzaren 4an joanekoan eta maiatzaren 8an itzulerakoan, B) taldeko zazpi klubek eta C) taldea eratzen duten zazpi, A) taldea eratzen duten zazpi taldeek eta B) taldeko bi talde libre geratuz.

Hamalau taldeak zozketaren bidez bikoteka elkartuko dira eta kategoria berdineko taldeek ez dute elkarren aurka jokatu, posible den heinean.

Zazpi garaileek, fase honetatik libre geratu direnekin batera, txapelketaren amaiera fasean hartuko dute parte.

2. Amaiera Fasea

Final-zortzirenek, final-laurdenek eta finalaurrekoek eratuko dute, hiru kasuetan partidu bikoitzaren arabera; eta finala partidu bakarraren arabera.

-Final-zortzirenak (maiatzak 15 eta 22)

Txapelketaren aurretiazko fasea gainditu zuten sei taldeek eta honetatik libre geratutako hamar hartuko dute parte, zozketaren arabera bikoteka elkartuta, A) taldeko ekipoak elkarren aurka ez jokatzearen baldintza bakarrarekin.

Joko-eremuen hurrenkera ondorengo arauen arabera ezarriko da eta taldeak kategoria ezberdinetakoak izango dira, joaneko partidua beheragokoan militatzen duenaren instalaziotan lehiatuko da, kategoria berdinekoak izaten direnean joko-eremuen hurrenkera boleki ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

- Final-laurdenak (maiatzak 25 eta 29)

Final-zortzirenetako zortzi garaileek lehiatuko dute, zozketa hutsaren bidez bikoteka elkartuta; joko-eremuen hurrenkera boleki ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

- Finalaurrekoak (ekainak 5 eta 12)

Final-laurdenetako lau garaileek hartuko dute parte, zozketa hutsaren bidez bikoteka elkartuta; joko-eremuen hurrenkera boleki ateratzerakoan izaten dutenaren berdina izango da.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

Finala

Finalaurrekoen bi irabazleen artean ospatuko da, ekainaren 18an. Zozketa baten ondoren bi taldeen arteko baten futbol zelaian egingo da.

3.- JOKALARIEN ZELAIRAKOTA ETA ARDEZKAKETA

Parte hartzen duen mailako taldeak osatzen duen lehenengo taldeko gutxienez bost jokalarik parte hartu behar dute partidaren ihardura osoan zehar. Honetaz gain, bost aldaketa egin daitezke gehienez, zazpi aldagaien artean.

4.- BERDINKETAK

Aldi baterako berdinketak EFF-FVFko Arautegi Nagusiak ezartzen duen moduan ebatziko dira.

Fase guztietan, amaierako partiduan izan ezik, berdinketaren kasuan ez da ezarritako luzapena ospatuko eta zuzenean penalti gunetik jaurtiketak egiteari ekingo zaio.

Azkeneko partiduan berdinketarekin amaitzen denean, hogeita hamar minutuko luzapena ospatuko da, hamabost minutuko bi denborekin, bosteko atsedenaldiarekin bereizitakoak, joko-eremua hautatzeko zozketa eginez. Luzapena amaitutakoan berdintasuna ebatziko ez balitz, penalti gunetik jaurtiketa batzuek egiteari ekingo litzaioke.

5.- EPAILEAK

Nazional mailako arbitroak hautatuko dira partiduak zuzentzeko.

Ordainagiria 124€tako bakarra izango da.

6.- PARTIDEN ORDUTEGIAK

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari. (Fax 94-473.22.21 P. Elektronikoa webmaster@eff-fvf.org edo EFF web orrian)

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, 15,30tik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 4 -

Honetaz gain, ordu epea ezartzen da partiduak hasteko, hau da goizeko 10.30tik 13.00tara eta arratsaldeko 15.30tik 18.30ra. Epe honetatik kanpo hasiko dira partiduak, klubaren arteko akordioarekin, Honetaz gain, astean zehar jokatzeko diren partidak asteko ordu epea 18.00tik 19.30ra izango da.

7.- GARAIKURRA

Euskadiko Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat eta irabazleordearentzat.

8.- DIZIPLINA BATZORDEA

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroaren aktak, Diziiplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2011eko apirilaren 15an



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General